


Astebeteko tratamendua pilula bakarrean

GIBaren aurkako egungo tratamendu erretrobiralak oso eraginkorrak dira, baina derrigor egunero-egunero hartzea eskatzen dute, eraginkor izango badira. Hainbat ikerketak erakutsi dute gaixoen % 30ek bakarrik hartzen duela behar bezala, eta birusak botikekiko erresistentziak garatzea eragin dezake horrek. Horren aurrean, astean behingo pilula garatu nahian dabilta Harvard Medical School-eko ingeniari biomedikoak, eta dagoeneko frogatu dute txerrietan eraginkorra dela.



ARG.: Bruce Blaus.

Pilula ahoz hartu behar da. Urdaileira iristerakoan, zabaldu eta izar-itxura hartzen du kapsulak. Handiegi bihurtzen da, piloroa zeharkatu eta urdailetik ateratzeko, eta barruko botika gutxika askatzen joaten da, urdailean bertan. Kapsulak hainbat botika izan ditzake barruan, izarraren beso bakoitzean jarrita botika bana. Era berean, kapsula diseinatuta dago elikagaiek pilorotik behera pasatzen jarraitu ahal izateko, traba egin gabe.

Tratamendu berriak porrot terapeutikoa murrizten lagundu lezake, eta lagungarri izan liteke, halaber, prebentziorako erabiltzen den kasuetan ere. Era guztietara, oraindik ikerketa gehiago egiteko beharra dagoela azpimarratu dute. ●

Ben Barres neurozientzialari iraultzailea hil da



Ben Barres.
ARG.: Stanford
Unibertsitatea.

Ben Barres 2017ko abenduaren 27an hil zen, 63 urterekin, pankrea-minbiziak jota. Neurozientzialari bikaina, "gliaren gurutza" ere deitzen zioten, haren lana funtsezkoa izan baitzen garuneko zelula-mota horiek ezagutzeko. Hark frogatu zuen gliako zelulek (garuneko zelulen 10etik 9) funtzio garrantzitsuak betetzen zituztela, eta aintzat hartu behar zirela garuna ezagutzeko eta harekin erlazionatutako gaitzak ulertzeko.

Hala dio [Carlos Matute Almagro Achucarro Neurozientzien Ikerketa Zentroko](#) zuzendari zientifikoak: "Barres aitzindari bat izan zen, haren lanak ikerketa-eremu berri oso bat ireki zuen. Besteak beste, frogatu zuen gliako zelula-mota batek, astrozitoek, neurotransmisoreentzat errezeptoreak zituztela; ordura arte, neuronek baino ez zituztela uste zen. Sinapsiak sortzen eta desegiten astrozitoek duten funtzioa argitu zuen, eta oligodendroitoak laborategian hazteko protokoloak eta teknikak sortu zituen, gaur egun gure laborategian erabiltzen ditugunak. Egia esan, gure egunerokoan, etengabe jotzen duguan espresatzen diren geneekin hark sortu duen datu-basera, guretzat ezinbesteko erreferentea baita".

Berdintasunaren aldeko ekintzaile sutsua ere bazela gogoratu du Almagro. Hain zuzen ere, transa zen. Jaio zenean, Barbara izena eman zioten, eta jada ikertzaile zela hartu zuen Ben izena. Genero-bazterkeria bere azalean bizita, emakumeen eta LGTBI+ pertsonen eskubideen alde egin zuen, bizitza pertsonalean zein [akademikoan](#). Mentore gisa egin zuen lana ere goraiatu du Matutek. ●